

Liburutegiaren genero ikuspegiaren azterketa

Liburuak garrantzitsuak dira gure sozializazioarako

Gure jendartearen, **sozializazio prozesua sexuaren arabera da**, jaiotzen garen unetik ez direlako berdinak neskek eta mutilek jasotzen dituzten mezuak. Genero sozializazio hau gure egunerokoan oso presente dago, umeen jantzietatik hasi eta kontatzen zaizkien ipuinetaraino.



Etorkizuneko belaunaldiak euren **bidea libreki eta modu askean** aukeratzea eta ibiltzea nahi badugu, ume eta gazteei zuzendutako ipuin eta liburuetan, **eredu posible guztien dibertsitatea** jaso eta sozialki bidezkoak direla erakutsi behar da.



Galdera:

Gaur egun haur-literaturan aurreiritzi sexistak al daude?

Zer egin da?



588 liburu (%10) zoriz aukeratu katalogo osotik (5.620 ale)



Liburuen edukia **banaka aztertu**



Elkarrizketak eragile desberdinei



Idazleak eta ilustratzaileak



Lan produktiboa



Maitasun erromantikoa

Aztertutako adierazleak



Pertsonaiak



Zaintza



Familia egoera



Estereotipoak




Espazioa



Aniztasuna (jatorria, funtzionala, sexuala)

Nork sortzen ditu liburuak?

Aztertutako liburuetan emakumeek **%36a idatzi** eta **%31a ilustratu** dituzte. Adin tartetan gora, emakume idazleek eta ilustratzaileek beherako joera dute.



Gure liburuetan estereotipoak apurtzen dira?

Aztertutako liburuak %16an baino ez dira **estereotipoak apurtzen**, neutralitate haratago **ekintza apurtzaile positiboak** edo **eredu anitzak** azaltzen.



%16 Bai

%81 Ez

%3 Ez adierazgarria



Liburuzainen azken urteetako ardura eta lanari esker, katalogoko eskurapen berrien artean liburu oso eraldatzaileak topatu dira.

Topatu ditugun estereotipoetako batzuk:

Neskek maitasunari garrantzia handia ematen diote, **txukunak** eta **lasaia** dira.



Mutilak salbatzaileak, indarkeri-zaleak, alprojak eta **desordenatuak** dira.



Nesken itxura oso garrantzitsua da. Ez dago aniztasunik, normalean **argalak** dira.



Emakumea etxeko eta zaintza lanekin lotuta dago. **Amantala** janztea ohikoa da.



Aitak ardurarik gabe, zaletasunekin eta dibertigarriagoak dira amak baino.



Emakumeen **irudikapena oso sexualizaturik** eta **apaingarri** gisa agertzen da.



Amonak zaintzan agertzen dira eta **maitekiro**.



Aitonak jakintsu gisa agertzen dira.



Emakumeen **arteko gatazkak** maiz agertzen dira.



Azalek kolore oso desberdinak dituzte protagonisten **sexuaren arabera**.



Emakumea sorgin moduan ageri ohi da. **Itsusia** eta **gaiztoa** irudikatzen da.



Aztiek sorginek baino **estatus hobea** dute eta **atseginak** eta **jakintsuak** dira.



| Nolakoak dira protagonistak?

Aztertutako liburuetan **pertsonaia maskulinoen kopurua** (%54) **femeninoena** (%22) **baino handiagoa** da. Gehienetan **pertsonaia oso estereotipatuak** agertzen dira eta **adinean gora estereotipoen presentzia ere gora** doa.

%22



Emakumeak

%54



Gizonak

%24



Ez adierazia
Animaliak/orekatua

%67

Pertsonaia
protagonista
estereotipatua



%72

2. mailako
protagonista
estereotipatua



%39

Emakumeak
erabakiak hartzen
>12 urtetako liburuetan



Rol desoreka

bikote
parekideetan



Animalia

protagonista gehienak
arrak dira (0-4 urte)



Komikietan

emakumeen
presentzia



Biografiak

emakumeen
presentzia



Sorgin

rola **neskek**
dute **ia beti**



Taldean

neskak agertu, ez
lider bakarti gisa.



| Nork egiten du zaintza?

Patriarkatuak eraginda zaintza gehien bat **emakumeak** egin izan du eta duen **balioa mespretxatu** egin da. Liburu askok oraindik hau islatzen dute.




%58

Bai

%39

Ez



%14

Bai

%83

Ez

| Nork egiten du lan produktiboa?

Emakumeak (%39) **gizonak** (%65) baino gutxiagotan langile moduan islatzen dira, eta hala agertzen direnean **oso lanbide feminizatuetan** ageri dira.




%39

Bai

%58

Ez



%65

Bai

%32


Ez

● Ez adierazgarria

Emakumea espazio pribatuan eta publikoan dago?

Aztertutako liburuen %68an emakumeak espazio pribatuan agertu dira, eta liburuen %43an espazio publikoan.


Adin tartetan gora, emakumea esparru pribatuan gehiago eta estereotipatuago erakusten da.



Zein famili eredu azaltzen dira?

Familia agertzen den liburuetan guztietatik eredu nagusia familia tradizionala (%68) da.

Eredu anitza (%10) oso gutxi erakusten da eta batez ere helduagoen liburuetan.



Aniztasuna islatzen da?


Aniztasunaren presentzia txikia da.

Aniztasuna gai nagusi moduan lantzen duten liburuak aurki daitezke, baina ez zehar lerro gisa kokatzen den testuinguru moduan.



Maitasun erromantikoa ageri da?

Maitasuna eta sentimenduak nesken kontua direla ondoriozta dezake ikerketak. Maitasun erromantikoa liburuen %9ean soilik ageri da, baina adin tartean gora, gehiago azaltzen da.



Ondorioak

- Emakume idazle eta ilustratzaileak gutxiengoa dira.
 - Sexu genero rol tradizionalak nagusitzen dira:
 - Gizonak liderrak, ausartak, jakintsuak dira, eta espazio publikoan nagusi.
 - Emakumeak edertasunaz edo zaintzaz arduratzen dira, etxe giroan.
 - Aniztasuna oso gutxi irudikatzen da eredu normatiboak nagusituz.
 - Deigarriak dira besteak beste: **emakumeen errepresentazio sexualizatua, sorgin figuraren erabilera** historikoki desegokia, **koloreen erabilera estereotipatua** edo **zaintza figuren desoreka**.
- Diagnostiko honi esker, oraindik asko dagoela egiteko ikusi dugu, **BADUGU LANEAN NONDIK HASI!**